

aundi onetan gure aberri txikiak bere zeregi-
Fla bete eban.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

Kolon ta euskaldunak

Nundik ta nora alkartu ziran
Kolon ta gure anaiak,
dirudienez lagunak ziran
zorionez alkartuak;
amets aundi bat izandu eben
ikaratzeko jendiak,
nun ete diran erri barriak
Aita beraren semiak...

Boga ta boga esan giñaike
agur Euzkadi maitia,
gure anaiak ba-doakiguz
billatuten lur barria;
ara, nun, egon, jakin nai eben
Jaunaren seme taldia,
ametsa, laster, biurtu jaken
amerikarren sendia.

Bai eta gero, egun larriak
ango t'euskaldun artean,
amerikarrak ikaraturik
aurkitzen ziran etxean;
bildurrak bildur ta gorrotoa
sortu jaken biotzean,
euskaldun arek euren bizia
emon eben erbestean.

PAULIN

Olazar'tar Martinen berbaldia, Kolon'i buruz, atzo Euskal Astean

Atzo asi zan Alameda de Rekalde 19'an
dan Eskolapioen ikastetxean, Euskerazaleak
Alkarteak eratu dauan Euskal-Astea.

Alkartearen lendakari dan Zubiri'tar
Iñaki'k egin eban astearen eta izlariaren aur-
kezpena.

Gero Olazar'tar Martin Alkartaren lenda-
kari ordean danak, bere itzaldia egin eban.

Barri asko eta benetan jakingarriak aurkez-
tu ebazan izlariak: Euskaldunak ugari joan
ziran Kolon'egaz batera Ameriketara, lenen-
go osteran asita. Batez be Juan de la Cosa
izan zan osteran orretan garrantzi aundiko gi-
zona. Galdames'en jaioa zan eta jatorriz San-
toña'koa, euskerea zan bere izkuntza eta talde
ondo alkartua osotzen eban beste euskaldun
guztiakaz.

Euskaldunak talde berezia ziran eta, asie-
rako berbea izan zan lez, zortzireun leguak
egin ebezanean, Kolon'en aurka jagi ziran
euskaldunak. Matxinada antzeko bat izan
zan.

Lenengoan ez eben ezer lortu beste itxas-
gizonak Colon'egaz bat egin ebelako, baiña
bigarren matxinada be egin eben eta orduan
alkartu jakezan besteak be eta Kolon'ek epe
bat ezarri bear izan eban. Epe orren barruan
eldu ziran Ameriketara.

Berbaldiaren ostean, Ameriketara osterak
gogoan ebazala, Solozabal'dar Paulin'ek ber-
tsolari-lana egin eban eta gero alkar-izketa
egiñaz amaitu zan egun onetan ekiñaldia.

Gaur bigarren itzaldia izango da. Gaia. Rh
euskaldunen odolean. Izlaria Arrinda'tar
Anes izango da. (DEIA'n agertua)

EUSKERAZALEAK